# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 2337

*EBAZPENA, 2013ko martxoaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, administrazio-espedientea bidaltzeari eta prozeduran interesatuta dauden pertsonei deitzeari buruzkoa.*

18/2013 zenbakiko prozedura laburtuari buruzko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu du Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegiak; izan ere, Leire Zurutuza González de Apodaka andreak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2012ko uztailaren 27ko Ebazpenaren aurka.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 legeak, uztailaren 13koak, 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskatu den administrazio-espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 3. Epaitegira bidaltzea.

Bigarrena.– Demandatu gisa prozeduran agertu ahal izateko, interesatuta dauden pertsonei dei egitea, haien interesak defenditzeko egokitzat jotzen badute. Bederatzi eguneko epe bat izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epaiak eskatutakoari baietza ematen badio, aldaketak Arabako lurralde historikoan beherago adierazten diren espezialitateetako zerrendetako hautagaiei eragin ahal die, baita duten kokapenari ere:

| | |
|---|---|
| 5116 | 648. tokitik 858.era. |

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara emateko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 21a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
OLATZ GARAMENDI LANDA.